

## **ALBOKAZALE KULTUR ELKARTEAREN FUNTZIONAMENDU PROPOSAMENA**

Albokazale kultur elkartearen zuzendaritzaren funtzionamendurako oinarri batzuk proposatzen dira agiri honetan. Zuzendaritza eratutakoan, hauek aldatu eta egokitzeko aukera izango du, hala baderitzo.

Elkarteak aurrera eramango dituen ekintza ezberdinetan, Euskal Herriko probintzia guztien errepresentazioa kontutan hartzea komeniko litzateke. Horretarako modurik erraz eta egokiena, zuzendaritza anitz bat edukitzea litzateke, probintzia ezberdinetako partaidez osatuta. Badakigu, hau ez dela ez errezena ezta ere egokiena elkarte bat eratzeko garaian, izan ere, zuzendaritza aldatu behar den guztietan beharko litzateke errepresantzio hau, berauek lortzeak dituen zailtasunekin.

Hala ez balitz, zuzendaritzatik kanpo bada ere, probintzia bakoitzetik "ordezkari" edo harremanetarako norbait edukitzea interesgarria litzateke.

Hona hemen zuzendaritzaren funtzionamendurako kontutan hartzeko puntu batzuk:

- Zuzendaritza izango da elkarteko motorra. Bera izango da, egin beharreko hainbat ekintzen bultzatzaile, antolakuntza eta batez ere babesle edo erantzukizuna izango duena. Besteak beste, elkarteko paper eta kontuak egunean eraman beharko ditu, eta estatutuek adierazitako puntuak ondo jarraitu.
- Zuzendaritzak, ikusten den beharraren arabera, urtean zehar behar adina bilera egingo ditu. Hasiera batean, bi hilabetez behin elkartzea proposatzen da. Bilera hauek non egin, zuzendaritza osatzen duten partaideen jatorriaren arabera, zuzendaritzak berak erabakiko du. Aldiero leku ezberdinetan egin daiteke. Gaur egun, telematikoki egiteko aukera ere hortxe dago.
- Zuzendaritzak egoki baderitzo, beste lan talde batzuk osatu ditzake. Ideia batzuk emateko, beharren arabera:
  - Errepertorioaren bateratze eta txukuntzeko beharra. Partitura eta beste baliabideak. (Taldea bat)
  - Web orria / sare sozialak. Gaur egun, web orri bat eta sare sozialetako presentzia ezinbestekoak dira. Web orriaren prestakuntza martxan da dagoeneko, baina ondo landu eta antolatu beharreko gaia da. Sare sozialak ere oso garrantzitsuak dira gaur egun, gure ekintzek oihartzuna izan dezaten. Hau ere elikatu behar da. (Lan taldea bat)
  - Topaketen antolaketarako laguntza taldea. Herriren batean topaketa bat antolatzeko asmoa dagoenean, laguntza emateko taldea. Deialdiak egin, kontaktuak pasa etab.
  - Publikazio eta artxibategia, sortutako materialak nahiz zaharrak jaso. (Lan taldea bat).

Esan bezala, hau funtzionamendurako proposamen bat da. Hemen aipatutakoak aldatu, gehitu edo kendu daitezke, zuzendaritzan dagoen lan taldearen irizpideen arabera.